

DIRA, DIRA...**Txillardegi: euskal azentuaren inguruan**

Gaur hasi behar dute azkenik, Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroek. Lanak ondo mamitu ondoren, gogor hasiko dira 16 gai ezberdinetan zehar eztabaidak eta lanak azaltzen.

Gai mordo bat landu da, duela hamabost urte hasi zirenetik Iparraldeko ikastaroetan. Euskal Unibertsitatea erdaraz lanean ari zenez, lan desberdinak euskaraz aztertzea eta aztertutako azarabaki zen, eta hori izan zen unibertsitate honen helburua.

Aurten ere, interesgarria eta bizi-bizirik agertzen zaigu U.E.U. linguistikatalean behintzat; azkenaldi honetan asko entzuten ari gara euskal azentuari buruz, hots, zergaitik euskal azentua? beharrezkoa al da? jarri bahariko al litzateke? gai konplexua ikus dezakezue, horrexegatik joan gara Txillardegirengana, berak zer ikusi handia duelako gai guzti honetan, U.E.U.ren inguruan guztia ahaztu gabe, bai noski, beraz denetaz mintzatu izan gara Iruñeko Larranoa eskolan.

Arrazoez esaten digu Txillardegik kurtso hauci izena aldatu behar harko litzatekela, prestakuntza etengabea bait da: «Lana urte guztian zehar egiten da eta maiatza aldean ordu guztiak betetzen saiatzen gara. Orduan gai bat proposatzen duenak bi ordutan zehar hitzegin behar du, edonork proposa dezake gaita».

Araza ekonomikoak

Beti bezala arazo ekonomikoak daude erditik, behin eta berriaz larru ibiltzen dira bere programa bete nahian eta ez da motza geratzen Txillardegi bere kritikak egitean: «Aurten hogeitabi miloi besterik ez ditugu jaso, eta hau ez da ezer; konparazio eginez, ikusten dugu 'II Congreso Mundial de Estudios Vascos' 1000 edo 1200 miloi jaso dituela eta noski, guri ez zaigu gaizki iduritzen, ez eta kongresu hau kritikatu, baina diferentzi honek ez du zentzurik eta batez ere demostratzen du ez dagoela borondate politikorik euskarabiltzatzeko. Garbi dago politika dagoela atzetik, zoritzarrez ez gara bakarrik, horra hor esaterako AEKren egoera».

Azentuaren inguruan

Linguistikaren gaian, azentua dugu lehen esan dugun bezala aurten eztabaidatuko den gairik interesgarrietakoa, eta Txillardegik badiu artzoiak honen alde aterat-



tzeko: «Aspaldiko asmoa dugu, ez da ezer proposatu ordea, horregaitik gure aldetik egitea pentsatu dugu. Euskal azentua oso berezia da eta ez omen du kanpoko eraginik. Behar harrak hor daude eta datoak falta dira, gehiena falta da».

Gauza guzti hauek entzun ondoren harritzen gaitu nola orain arte ez den ezer egin eta azentuaren aurkako arrazoiak izango direla ere sumatzen dugu: «Honen aurka hitzeginen duenak ez ez daki; hau erreakzio humanoa da, euskara baituan berdina gertatu zen. Euskal azentua konplikatu da oso, horregaitik iritzi oso desberdinak ditugu;

ze azentu hartu lurralde batekoa ala besteak?».

Egoera ikusiz, betiko gora-behera probintzialak sor daitezkeen ala ez galdetzen diogu: «Hemen gauza proiektu nazional bat egitea da, regionalismoak ez du zentzurik. Badira talde oso regionalistak PNVA bezala, baina gaur egun, berriak ere gauditzen ari dira partidu barnean».

Badirudi eztabaida konplexua dela, eta behin eta berriro ikusten dugu gure hizkuntzan gauzak asko landu behar direla oraindik. Biltzar hauen emaitza? ikusi beharko... behintzat interesgarria izango dela ez dugu dudan jartzen.

BOLANDERAK**Takonerako hilketa (1)**


KASUALITATEA ere baduk», zioen bere artean Pakok, lehentxoago ikusitako bandera espainola burura zertokiolarik. Aitarien anaiak zaharrenek Frantzisko izena zuela eta sortu berria zen haurrari bere besoetako ia zateka egokitzen omen zitzaion, horra ohitura puta horiek jendeak nola errespetatzen dituen. Ezta uztailaren 18an jaioagatik ere ez zioten mutikoari barkatu. «Diezioitxojulioan tokatu behar jaiotzea, eta gainera Frantzisko». Eta Pako gelditu zen txikitatik. «Praixku» firmatzen zueneko garaia izan zituen, baina saioak segidarik ez zuen izan. Bere herria «Pantxo» zela esaten ezin hasiko zen, arrain-txikitari zaleak ziren bere lagunek berehala aterako bait zioten ziria.

Aspaldi bukatua izan arren gerra hain gertu usaintzen zen bere haurtzarora eramane zuten «Los Tres Reyes» hotelaren aurrean dagoen piper-potora ikusteak. Gau ta egun, uda ta negu, egoten da han bandera espainola, baina larunbat ilunabarreko ilunbista horretan, egun osoan Iruñeko harriak ere kixkali nahi zituen galdak freskatzeko asmorik ez zuela, jaioterriko kaletan ikusi zuen bere burua Pakok. Eta zeharbidetik pasatzeko zain zegoen agure hark zeraman irratian «hoy 18 de julio, aniversario del Glorioso Alzamiento Nacional, su Excelencia el Generalísimo...» entzutea iruditzen zitzaion. Baina ez, «todo lo que toca es oro» kantatzen zuten irratia Gurutze Gorriaren beste loteria berri bat anuntziatuz, eta haurtzaroak aspaldi ihes egin zela aiortu behar izan zuen.

«Takonera ere kanbiatu zigutek», atara zitzaion suspirio batean. Sanferminak diren katalismoaren arrastoak ia erabat ezabatutak zituzten, eta jardinak berak itxurosoak aurkitu zituen Pakok. Baina beti tximuz beteta ezagutu zuen kaiola —nola amorrarritzen zituzten haurrak!— hutsik zeuden, eta alboko beste kaiolan ziren faisanoak dotore haien arrastorik ere ez. Basahuntzak bai, eta ahaateak eta konejuak, lehen bezala zeuden; urteroko animalia berak zirela apostu egingo zukeen, fosa alde batetik bestera zeharkatzen duen errekaioa hormigoiz hartu eta kanalizatuta ikusi ez balu. Basurderen batekin topo egin nahiz ibili ziren, zoko guztiak miatuz, Pakoren begiak, baina alferrik.

Oraindik ere gogoan izango du Pakok zer kantatuz zihoan litxarretarik zupatzen zituzten haurren eta tertulia lasaian pasiatzen ziren atso-agureen artean. «Saltzen-saltzan, txakur txiki baten karmelua...» tarareatzen zuten fosan zeuden azienda haien artean adarrik handienak zituenari erreparak. Lasai eseri zen petrelean. «Cuando vamos, dónde, a Ochandiano, a qué, a pasar...» Hiru tiro haiek eten zitoten kantua.

Tiroen eta garrisairen sustoa pasata, zubaiztiaren erdi aldean gertatua zela ohartu zen. «Begara gizon hari» esan zuen norbaitek, eta biztu berriak ziren farolek ongi argitu ez zuten gizon handi bat ikusi zen, kojoka, karretera zeharkatzen, dibili-danbala Parte Zaharretan sartzeko. Konturatu baino lehen zangoek haruntza eramane zuten Pako, eta «norbaiz tiroz akabatu nahian ibili dira baina huts egin diate» esatera zioen abots ahul batek ezel edo sastraka baten itzalpetik «hi, bai, hi!...» deitu zionean. (jarraitzekotan)

IRABIATARRA**EUTSI GOIARI!**

1914. urtean Ibergain cibartarra. Honelakoxeokak ziren hernaniarrak ere.

Idi-pareak baserriaren ohorea defendatuz

Euskal Herrian idi-apusturik ezagutzen ez duenik ez da jaio oraindik. Denok dakigu idiek jasaten dutena ez dela txantxetako baina garai batetako baserriarrentzat honelako ikuskizunak eta indar frogak bizitzaren laztasuna arintzeko balio zuten. Honela, baserrien arteko pikeak ez ziren txikiak eta bakoitzaren harrotasuna bertako idi-pareek defendatzen zuten. Hala gertatu zen Hernanin 1910. urtean.

Etxeona—Toki-Eder apustua

Hernaniatik igarotzen den Uru-mea ibaiak bi baserri horien lurrak zaitzen zituen eta betidanik bion arteko pikea ezaguna zen herri mailan. Gauzak argitzeko, ez bait zen diru kontua soilan jokatzen zena, bi idi-pare hauek izugarriko ospea zuten Donostia hotel handien harriak berriek garraiatu bait zituzten, apustu bikain bat

egin zuten: ordu batez 4.000 kilotako harriak norik plaza gehiago egin.

Ingurutako eta Gipuzkoa osoko baserriarren hortzetan zebiltzan apustu horren kontu guztiak. Denek ezagutzen zituzten bi idi-pareak eta indar berdintasunak nabariak ziren. Apustuaren eguna hurbiltzen zen heinean, nekazari gehienak «Etxeona» eta «Toki-Eder» baserriatik pasatzen ziren espioi lanak egiteko asmoz, apustua noren alde joko zuen, era berean haren alde diru guztia jokatzen zuten.

Apustu eguna iritsi baino hamar egun lehenago idi-pareok baserriko lan guztiak utzi zituzten eta bi baserriko familia osoaren begirunea izanik, baba txiki mordoan jan arazten zieten. «Etxeona»-ko Joxe Marik zion: «gure idi ezkerria probintzin onena eta eskubidia oba-gua».

Aida-aida baina pot

Apustu egunean Hernani kanpoko eta bertako jendeak gamezka zegoen, bertako sagardotegi eta fonda guztiak barra-barra zeuden. Zotza egin eta «Etxeona» baserrikoak hasi ziren. Apustua hasi bezain laister «aida-aida» marruak entzuten ziren eta idien hatsa geroz eta estuagoa zen.

Ordu erdirako, idiak odola zeriotela hantxe ziren arnas-estuka baina kolpe bakoitzean beti aurrrera. Beren ordua bukatzerako 4 plaza eta 3 marra egin zuten. Leher egin amaitu zuten.

Arratsaldean «Toki-Eder»-ko idi pareak hasi eta erraztasunez irabazi zuten 5 plaza eginaz. Hango orruak ez ziren tipiak izan. «Toki-eder» baserrikoek zioten: «idi ezkerria probintzin onena eta eskubidia oba-gua, ja, ja».